

V. PLANGINTZALDIA:
EUSKARAREN
ERABILERA PLANA
SOPELAKO UDALA



emunⁱ
HIZKUNTZA ZERBITZUAK

AURREKARIAK

- 1.- Sopelako Udalak, 80ko hamarkadatik hasita, urteak daramatza euskararen erabilera normalizatzeko lanak egiten eta bultzatzen, bai udalerrira begira, bai udal-jardunera begira.
- 2.- Udal- jardunari dagokion V. Plangintzaldia 2013an hasi da. Beraz, Sopelako udalak orain artekoa baloratu eta hurrengo urteetarako plangintza estrategikoa ondu du. Horretarako, zerbitzu guztietako langile adierazgarriz eta Mankomunitateko teknikariez osatutako lantalde batek, ordezkaritza sindikala barne izan delarik, egin du egoeraren diagnostikoa, baita hurrengo urteetarako helburuak eta ekintzak proposatu ere. Azkenik, 2013-2014rako lehentasunak ere finkatu ditu.
- 3.-V. Plangintzaldi honen iraupena 2013tik 2017ra bitartekoa izango da. Urte hauetan jarraian azaltzen diren helburuak eta ekintzak jarriko dira martxan. Plangintzaldiaren erdialdean, balorazioa egingo da. Eta plangintzaldia amaitutakoan, egindakoa baloratu eta hurrengo plangintzaldiari ekingo zaio.



EGINDAKO LANA

Honako pauso hauek izan dira Sopelako Udaleko Euskararen Erabilera Plana osatzeko:

1. Orain arte Sopelako udalean euskararen ezagutza eta erabilera sustatzeko egindako ekintzak bildu eta baloratu dira. Horretarako, Mankomunitateko euskara teknikariek , Euskara zinegotziak eta Udaleko zerbitzu guztietako ordezkariak bilera bat egin zuten, Udalak Eusko Jaurlaritzari 2012an Irati formatuaren bidez bidalitako datuak kontuan hartuta. Bilera horretan behin-behineko diagnostikoa osatu zen.
2. Bestalde, Eusko Jaurlaritzak Erabilera Plana ontzeko proposatzen dituen helburu, adierazle eta ekintzak aztertu ziren eta Sopelako Udalaren egoerara ondoen egokitzen zen plan bat proposatu zuen lan-talde horrek.
3. Lan-talde horren hirugarren batzarrean, berriz, plangintzaldiaren lehendabiziko urteko lehentasunak ezarri ziren.
4. Lan-talde horren ekarpenak Emuneko teknikari batek bildu ditu (baita bilerak dinamizatu ere). Zegozkion moldaketa teknikoak egin ditu teknikari horrek, baita bestelako ekarpenak jaso eta landu ere.



DOKUMENTU HONEK BILTZEN DITUEN EDUKIAK

Dokumentu honek Sopelako V. Plangintzaldiari dagozkion proposamenak biltzen ditu.

Alde batetik, atal elebidunak sortzeko egindako proposamena dator. Bertan aztertzen dira Sopelako Udaleko lan-sailak eta plangintzaldirako proposamen zehatza egiten da.

Beste alde batetik, Sopelako Udaleko administrazio barruko hamabi esparruak landu dira, Eusko Jaurlaritzak zehazten dituen hamabi esparruak hain zuzen ere. Esparru bakoitzean diagnostikoa txertatu da eta, horrez gain, plangintzaldiari dagozkion helburuak. Behin hori eginda, esparru bakoitzeko 2013-2014ko lehentasunak ere zerrendatu dira.

Orokorrean, Sopelako Udaleko Euskararen Erabilera Plan honek 2013-2017 urte bitarteko helburuak eta ekintzak barnebiltzen ditu.



ATAL ELEBIDUNAK



emunⁱ
HIZKUNTZA ZERBITZUAK

ATAL ELEBIDUNAK

Sopelako udalari dagokion indizea:

%53,48

Beraz,

a) Erakundeak derrigorrez bete beharreko indizea %0tik %25era bitartekoa denean:

Administratuari zerbitzua euskaraz eskaini beharko zaio bai ahoz, bai idatziz eta, horretarako, jendaurreko administrazio-atal elebidunak ezarriko dira. Era berean, administrazio-atal elebidunak jarriko dira gazteriarekin harreman zuzena eta ohikoa duten ataletan eta, pixkanaka, erakundeak erabilera normalizatzeko duen planean horrela ezarrita badago, euskara erabiltzeko mikroplanak ere egingo dira gizarte-mailako administrazio-ataletarako.

b) Erakundeak derrigorrez bete beharreko indizea %25etik %45era bitartekoa denean:

Aurreko atalerako azaldutako helburuaz gainera, administrazio-atal elebidunak jarriko dira gizarte-izaerako ataletan eta, pixkanaka, erakundeak euskararen erabilera normalizatzeko duen planean horrela ezarrita badago, euskara erabiltzeko mikroplanak egingo dira maila orokorreko administrazio-ataletan ere.

c) Erakundeak derrigorrez bete beharreko indizea %45etik %70era bitartekoa denean:

Aurreko atalerako azaldutako helburuaz gainera, administrazio-atal elebidunak jarriko dira izaera orokorreko ataletan, erakundeak euskararen erabilera normalizatzeko duen planean ezarritakoaren arabera.



ATAL ELEBIDUNAK

Atal elebidunak izendatzeko baldintzak:

- a) ataleko langile denek edo ia denek (% 80) derrigortasun-data izatea**
- b) ataleko langile denek edo ia denek (% 80) HE egiaztatuta izatea (4. HE duten lanpostuetan kontuan izango da 3.HE egiaztatuta izatea)**
- c) atalburuak derrigortasun-data izatea eta dagokion HE egiaztatuta izatea**



ADMINISTRAZIO ATALAK: egungo egoera

1.1.- Idazkaritza: 5 lanpostu

Idazkaria (betetzen denean HEa beteta izan beharko du)

Idazkaritzako Administraria

Alkatetzako Administraria

Derrigortasun data jarri

Estatistikako Administraria

Ordenantza-jakinarezlea-artxiboa

Hutsik 1 (Behin-behinekoak HE bete gabe)

HE beteta 2 (% 40)

HE bete gabe 2

IZAERA OROKORRA



ADMINISTRAZIO ATALAK: egungo egoera

1.2.- Kontratazioa-Hirigintza Juridikoa: 4 lanpostu

Teknikari arduraduna
Administrariak 3

Hutsik 0
HE beteta 4 (% 100)
HE bete gabe 0

IZAERA OROKORRA



ADMINISTRAZIO ATALAK: egungo egoera

1.3.- Giza baliabideak: 2 lanpostu

Teknikari arduraduna **Derrigortasun data jarri**
(titularrak 2. HE egiaztatuta, eginkizunak betetzen ari den teknikariak 3. H.E.)
Administraria

Hutsik 0
HE beteta 2 (% 100)

GIZARTE IZAERA



ADMINISTRAZIO ATALAK: egungo egoera

1.4. Informatika eta Herritarren Arretarako Bulegoa: 8 lanpostu

Arduraduna **Derrigortasun data jarri**

Administrariak 5 (HE beteta 4 % 80)

Sistemen arduraduna

Erregistroa, telefonoa eta informazioa

Hutsik 0

HE beteta 5 (% 62,50)

HE bete gabe 3

JENDAURREKO ATALA
IZAERA OROKORRA



ADMINISTRAZIO ATALAK: egungo egoera

2.- OGASUNA-KONTUHARTZAIETZA: 5 lanpostu

Kontuhartzailea
Administrariak (4)

Hutsik 0
HE beteta 4 (% 80)
HE bete gabe 1

IZAERA OROKORRA



ADMINISTRAZIO ATALAK: egungo egoera

3.1.- Kultura, programazioa: 3 lanpostu

Kultura, aisialdia eta komunikazioko Teknikari laguntzaileak 3
Oraintsu bete da 3. lanpostua behin betiko

3. HE jarri

Hutsik 0

HE beteta 3 (% 100)

HE bete gabe 0

GAZTERIA ETA GIZARTE IZAERA



ADMINISTRAZIO ATALAK: egungo egoera

3.2.- Liburutegia: 3 lanpostu

Laguntzailea **Derrigortasun data jarri**

Kirol eta berdintasuna

Atezaina **Derrigortasun data jarri**

Hutsik 0

HE beteta 2 (% 66,66)

HE bete gabe 1

GIZARTE IZAERA ETA GAZTERIA



ADMINISTRAZIO ATALAK: egungo egoera

3.3.- Mantentze-lanak Kurtzio: 2 lanpostu

Mantentze-lanetako ofizialak (2)

Hutsik 0

HE beteta 0 (% 0)

HE bete gabe 2

IZAERA BEREZIA



ADMINISTRAZIO ATALAK: egungo egoera

4.1.- Bulego teknikoa: 3 lanpostu

Arkitektoa

Derrigortasun data jarri

Aparejadorea 1

Aparejadorea 2

Derrigortasun data jarri

Hutsik 0

HE beteta 2 (% 66,66)

HE bete gabe 1

IZAERA OROKORRA



ADMINISTRAZIO ATALAK: egungo egoera

4.2.- Brigada: 14+1 lanpostu

Brigadako arduraduna

Arduradunaren laguntzailea

Ofizialak (9)

Peoiak (3)

Garbitzailea (1) (amortizazioa proposatuta)

Hutsik 2+1

HE beteta 3 (% 20) 14 lanposturekiko

HE bete gabe 9

IZAERA BEREZIA



ADMINISTRAZIO ATALAK: egungo egoera

5.- UDALTZAINGOA: 30+1 lanpostu

Azpiofizial burua **3. HE jarri**
Azpiofizial administratiboa (amortizazioa proposatuta)
Caboa
1. mailako Agenteak (6)
Agenteak (19)
Agenteak 2. jarduera (2)
Administraria

Hutsik 6
HE beteta 18 (% 60) 30 lanposturekiko
HE bete gabe 7

GIZARTE IZAERA



ADMINISTRAZIO ATALAK: egungo egoera

6.- ESKOLA: 2 lanpostu

Atezainak **2. HE jarri**

Hutsik 0

HE beteta 2 (% 100)

HE bete gabe 0

GAZTERIA ETA JENDAURREA



ADMINISTRAZIO ATALAK: egungo egoera

7.- EUSKALTEGIA: 6 lanpostu

5 irakasle (1 zuzendaria)
Administrari laguntzailea

Hutsik 0
HE beteta 6 (% 100)
HE bete gabe 0

EUSKARAZKO IZAERA



ADMINISTRAZIO ATALAK: lehentasunak

Atal elebidun izendatzeko aukera eta lehen mailako lehentasuna:

- Kontratazioa-Hirigintza-Juridikoa
- Giza baliabideak
- Informatika eta Herritarren Arretarako Bulegoa
- Ogasuna-Kontuhartzailletza
- Kultura, programazioa
- Liburutegia
- Eskola

Eta, batez ere, jendeaurreko lanpostuak.



ATAL ELEBIDUNAK: lehentasunak

Bigarren mailako lehentasuna:

- Idazkaritza
- Bulego teknikoa
- Udaltzaingoa

Izaera bereziko atalak:

- Mantenua Kurtzio
- Brigada



EUSKARAREN ERABILERA PLANA



emunⁱ
HIZKUNTZA ZERBITZUAK

1.- Hizkuntza gaitasuna	
2.- Ahozko komunikazioa	
3.- Idatzizko komunikazioa	
4.- Itzulpenak	
5.- Prestakuntza orokorra	
6.- Tresna eta aplikazio informatikoa	
7.- Internet eta intranet sareak	
8.- Argitalpenak	
9.- Hizkuntza paisaia	
10.- Iragarpenak, publizitatea, kanpainak	
11.- Diru-laguntzak	
12.- Kontratazioak	



1.- HIZKUNTZA GAITASUNA



HIZKUNTZA GAITASUNA

DIAGNOSIA

ONDO EGINDAKOAK	HOBETU BEHARREKOAK
<ul style="list-style-type: none">— Euskaraz hitz egiteko gaitasuna duten langile asko dago.— Sail batzuetan denak edo ia denak euskaldunak dira (Ogasuna, Kultura, Idazkaritza, ...).— Kiroldegiko begiraleak euskalduntzeko kanpaina egiten ari da.— Langile euskaldunen kopuruak gora egin du.	<ul style="list-style-type: none">— Orokorrean legea baino ez da betetzen: gaitasun hori ez da erabileran islatzen.— Arduradun politikoen artean bik ez dakite euskaraz.— Zinegotzien artean, seik-edo ez dakite.— Kiroldegiko begirale gehienak erdaldun elebakarrak dira.



HIZKUNTZA GAITASUNA

1.1.- Hizkuntza eskakizunen egiaztapenak areagotu.

EKINTZAK
Derrigortasun-data ezarria izan ala ez izan, dagokien hizkuntza-eskakizuna egiaztatu gabe duten langileekin bildu, eta aztertu bakoitzarekin euskalduntze-plan pertsonalizatua adosteko aukera: ordu-kreditua, ikastaro-mota...
Derrigortasun-data izan eta dagokien hizkuntza-eskakizuna egiaztatu gabe dutenak IVAPek antolatzen dituen euskarazko ohiko klaseetara edo HABEk homologaturiko ikastaroen artean Udal Euskara Zerbitzuak egoki jotzen dituenetara bideratu.
Lanpostuak betetzeko deialdietan, finko zein epe jakinerakoetan, euskararen ezagutza derrigorrezkoa izan ez eta meritutzat jo behar denean, 86/1997 Dekretuko 31.1 artikuluan aurreikusitako puntuaziorik gorenak baloratu.
Lanpostu zerrendako hainbat lanposturi hizkuntza eskakizunak egokitu edota derrigortasun-datak ezarri.
Jadanik eginda dauden aldi baterako izendapen eta kontratazioetan hizkuntza gaitasuna aztertu eta egoki iritzitako neurri zuzentzaileak hartu.
Udalera praktikak egitera datozen ikasleei dagokien hizkuntza gaitasuna eskatu.
HAEE-IVAPen azterketa-deialdiak kudeatzerakoan, langileei zuzendutako komunikazio-moduak hobetu eta sistematizatu.
Pertsonaleko lan-sailarekin koordinazioa hobetu, HE kudeaketa hobetzeko.



1.2.- Salbuetsitakoan euskararen ezagutza hobetu.

EKINTZAK

Salbuetsitakoan hizkuntza-maila eta jarrerak aztertu eta planaren garapenean txertatu.

Salbuetsitakoan egokitutako hizkuntza-prestakuntza eskaini.

1.3.- Arduradun politikoan euskararen ezagutza hobetu.

EKINTZAK

Komunikazioa eta sentsibilizazioa landu arduradun politikoan artean, erabilera-planean eta horren ezarpenean inplikatzeko.

Arduradun politikoek euskara ikasteko programa bereziak antolatu.

1.4.- HE egiaztatua duten langileen euskararen ezagutza hobetu

EKINTZAK

Dagokien HE egiaztaturik eduki arren, euren gaitasun komunikatiboa hobetu nahi duten langileentzako ikastaroen premia aztertu eta eskaini.

HE egiaztaturik dutenei autonomia gehiago izateko ikastaroak antolatu: itzulpengintzaren hasi-masiak, hizkuntza asertibitatea, ...



HIZKUNTZA GAITASUNA: LEHENTASUNAK

1.1.- Hizkuntza eskakizunen egiaztapenak areagotu.

EKINTZAK

Derrigortasun-data ezarria izan ala ez izan, dagokien hizkuntza-eskakizuna egiaztatu gabe duten langileekin bildu, eta aztertu bakoitzarekin euskalduntze-plan pertsonalizatua adosteko aukera: ordu-kreditua, ikastaro-mota...

1.2.- Salbuetsitakoan euskararen ezagutza hobetu.

EKINTZAK

Salbuetsitakoan hizkuntza-maila eta jarrerak aztertu eta planaren garapenean txertatu.

1.3.- Arduradun politikoan euskararen ezagutza hobetu.

EKINTZAK

Arduradun politikoek euskara ikasteko programa bereziak antolatu.

1.4.- HE egiaztatua duten langileen euskararen ezagutza hobetu

EKINTZAK

Dagokien HE egiaztaturik eduki arren, euren gaitasun komunikatiboa hobetu nahi duten langileentzako ikastaroen premia aztertu eta eskaini.



2.- AHOZKO KOMUNIKAZIOA



AHOZKO KOMUNIKAZIOA

DIAGNOSIA

ONDO EGINDAKOAK	HOBETU BEHARREKOAK
<ul style="list-style-type: none">– Euskaraz etortzen denari euskaraz egiten zaio harrera oro har.– Telefonoz lehen hitza euskaraz izaten da liburutegian.– Udal Gobernuak euskaraz komunikatzeko ohitura bultzatu du.– Umeei zuzendutakoan (liburutegian, kiroldegian) euskaraz izaten da lehen hitza.	<ul style="list-style-type: none">– Lankideen arteko erabilera baxua da oro har sail gehienetan.– Lehen hitza ez da beti euskaraz izaten, ezta telefonoz ere.– Kiroldegiko ikastaro gehienak gaztelaniaz dira.– Kontratazio arloa da euskaraz gutxien erabiltzen duen arloa.



AHOZKO KOMUNIKAZIOA

2.1.- Erakundeko ahozko kanpo-harremanetan euskararen erabilera gehitu.

EKINTZAK

Hizkuntza Ofizialen Erabilerarako Irizpideak finkatu ahozko komunikazioetarako, indarrean dauden lege-arau orokorrak aintzat hartuta: a) telefono eta leihatilan, herritarrekin, beste administrazioekin nola aritu jakiteko; b) hirugarrenetik ahozko kanpo-harremanak eragingo dituzten kanpo-kontratazio administratiboetan eta horiek betetzeko neurriak hartzeko; eta c) jendaurreko ekitaldietarako eta betetzen direla bermatzeko (prentsaurrekoetan, erakundeak antolatutako ekitaldietan...).

Komunikazioa eta sentsibilizazioa landu langileen artean, Hizkuntza Ofizialen Erabilerarako Irizpideak ezagutzera emateko, herritarrek dituzten hizkuntza-eskubideen gainean.

Komunikazioa eta sentsibilizazioa landu herritarrei eta beste administrazioei begira, Administrazioarekin euskarazko harremanak sustatze aldera.

Lehen harremana euskaraz izan dadin protokoloak zehaztu eta horiek betetzeko neurriak hartu (aurrez aurrekorako, telefonoz jarduteko...).

Adierazgarriak jarri, herritarrei euskararen erabilera-eskubideak ezagutzera emateko (mahai-gainekoak...).

Interpretazio zerbitzuaz baliatu zenbait ekintza instituzionaletan.

Udalerako lanean hasten diren langile berriei, finko nahiz behin-behineko izan, hizkuntza-irizpideei buruzko jarraibideak eman.

Kiroldegiko ikastaroak euskaraz emateko programa indartu eta areagotu

Musika Eskolako Euskararen Erabilera Plana diseinatu eta martxan jarri.



2.2.- Erakundeko ahozko barne-harremanetan euskararen erabilera gehitu.

EKINTZAK

Hizkuntza Ofizialen Erabilerarako Irizpideak finkatu erakunde barruko ahozko komunikazioetan, indarrean dauden lege-arau orokorrak aintzat hartuta.

Langile eta arduradun politikoengan eragin, hartzaile pasiboak prestigiatzeko.

Adierazgarriak landu, euskaraz lan egiteko prestatuta dauden langileek elkarren berri izan dezaten eta gainerakoei ezagutzera emateko (mahai gainekoak, pinak...).

Langileen arteko hizkuntza-ohiturak aldatzeko plan pilotuak martxan jarri, egokia ikusten den sailetan.

Euskaraz aritzeko gaitasun handirik ez duten langileei aukerak eskaini, euskaraz eroso senti daitezen.



AHOZKO KOMUNIKAZIOA: LEHENTASUNAK

2.1.- Erakundeko ahozko kanpo-harremanetan euskararen erabilera gehitu.

EKINTZAK

Hizkuntza Ofizialen Erabilerarako Irizpideak finkatu ahozko komunikazioetarako, indarrean dauden lege-arau orokorrak aintzat hartuta: a) telefono eta leihatilan, herritarrekin, beste administrazioekin nola aritu jakiteko; b) hirugarrenetik ahozko kanpo-harremanak eragingo dituzten kanpo-kontratazio administratiboetan eta horiek betetzeko neurriak hartzeko; eta c) jendaurreko ekitaldietarako eta betetzen direla bermatzeko (erantzuleak erakundeak hartatutako ekitaldiak).

Lehen harremana euskaraz izan dadin protokoloak zehaztu eta horiek betetzeko neurriak hartu (aurrez aurrekorako, telefonoz jarduteko...).

Adierazgarriak jarri, herritarrei euskararen erabilera-eskubideak ezagutzera emateko (mahai-gainekoak...).

2.2.- Erakundeko ahozko barne-harremanetan euskararen erabilera gehitu.

EKINTZAK

Hizkuntza Ofizialen Erabilerarako Irizpideak finkatu erakunde barruko ahozko komunikazioetan, indarrean dauden lege-arau orokorrak aintzat hartuta.

Adierazgarriak landu, euskaraz lan egiteko prestatuta dauden langileek elkarren berri izan dezaten eta gainerakoei ezagutzera emateko (mahai gainekoak, pinak...).

Langileen arteko hizkuntza-ohiturak aldatzeko plan pilotuak martxan jarri, egokia ikusten den sailetan.



3.- IDATZIZKO KOMUNIKAZIOA



IDATZIZKO KOMUNIKAZIOA

DIAGNOSIA

ONDO EGINDAKOAK	HOBETU BEHARREKOAK
<ul style="list-style-type: none">— Kanpoko komunikazio gehiena euskara egiten da sail gehienetan.— Euskaraz bidaltzen diguten postei euskaraz erantzun (liburutegia).— Idazkaritza eta hirigintza sailtan dokumentu erabilienean hainbat txantilo sortu dira (ereduak).— Itzultzaileak langileei bere garaian ikastaroa eman zien eta oso ondo baloratzen dute.	<ul style="list-style-type: none">— Barne komunikazioetan gaztelaniaz egiten dute oro har.— Testu gehienak gaztelaniaz sortzen dira.— Itzulpen zerbitzura gehiegi jotzen da askotan, denbora faltagatik, edo euskara behar beste ez delako menperatzen, ...— Kontratazio arloan ez dago horrenbeste eredurik sortuta.— Udaltzaingoa erabiltzen diren eredu ia guztiak gaztelania hutsean daude.



IDATZIZKO KOMUNIKAZIOA

3.1.- Erakundearen idatzizko kanpo-harremanetan euskararen erabilera gehitu, sortze lana areagotuz, komunikazioen kalitatea zainduta eta edozein euskarritan.

EKINTZAK

Hizkuntza Ofizialen Erabilerarako Irizpideak finkatu idatzizko kanpo-harremanetan, paper bidezkoetan zein telematikoetan, indarrean dauden lege-arau orokorrak aintzat hartuta.

Hizkuntza Ofizialen Erabilerarako Irizpideak finkatu hirugarrenekiko idatzizko kanpo-harremanak eragingo dituzten kanpo-kontratazio administratiboetan, eta horiek betetzeko neurriak hartu, indarrean dauden lege-arau orokorrak aintzat hartuta.

Komunikazioa eta sentsibilizazioa landu langileen artean: idatzizko kanpo-komunikazioetarako erakundeak ezarri dituen Hizkuntza Ofizialen Erabilerarako Irizpideak ezagutzera emateko; kanpo-harremanetan euskara ere erabiltzeak duen garrantziaz jabetzeko; teknologia berrietan eta harreman telematikoetan euskararen presentzia ziurtatzeak duen garrantzia azpimarratzeko...

Administrazioarekiko harremanak euskaraz izan nahi dituzten herritarrak aintzat hartu, Udalarekin harremana euskara hutsean eduki nahi duten herritarren erroldaren bidez. Erakundean erroldaren aplikazioa bermatzeko neurriak hartu.

Harremanak euskaraz izan nahi dituzten erakundeak aintzat hartu. Udalarekin harremana duten beste administrazioekin, erakundeekin eta herriko elkarteekin euskarazko idatzizko harremana areagotu, bietara edo euskara hutsean izateko aukera eskainiz.

Udalarekin hitzarmenen bat duten elkarteekiko harremanetan euskararen erabilera areagotzeko aukerak aztertu, neurriak proposatu eta neurri horiek betetzeko bitartekoak jarri.

Kanpora begirako dokumentu estrategiko orokorrak identifikatu, euskaratu (beharrezkoa denean), moldatu (testu argiak, zuzenak eta egokiak eta izan daitezten) eta langileen esku jarri euskarri ezberdinetan.

Idazki elebidunetan euskara nabarmentzeko irizpideak zabaldu eta betetzen direla bermatu.



IDATZIZKO KOMUNIKAZIOA

3.2.- Erakundearen idatzizko barne-harremanetan euskararen erabilera gehitu, sortze lana areagotuz, komunikazioen kalitatea zainduta eta edozein euskarritan.

EKINTZAK

Hizkuntza Ofizialen Erabilerarako Irizpideak finkatu idatzizko barne-harremanetarako, indarrean dauden lege-arau orokorrak aintzat hartuta.

Komunikazioa eta sentsibilizazioa landu langileen artean, idatzizko barne-komunikazioetan erakundeak ezarri dituen Hizkuntza Ofizialen Erabilerarako Irizpideak ezagutzera emateko.

Adierazgarriak landu, euskaraz lan egiteko prestatuta dauden langileek elkarren berri izan dezaten eta gainerakoei horren berri emateko (outlookeko zerrendak, mahai-gainekoak, pinak...).

Erakunde barruan komunikazioak euskaraz jaso nahi dituzten langileak identifikatu eta horiei informazioa hedatzeko protokolo bat zehaztu.

Barrura begirako dokumentu estrategiko orokorrak identifikatu eta moldatu (testu argiak, zuzenak ea egokiak izan daitezen) eta langileentzako erabilgarri jarri.



IDATZIZKO KOMUNIKAZIOA: LEHENTASUNAK

3.1.- Erakundearen idatzizko kanpo-harremanetan euskararen erabilera gehitu, sortze lana areagotuz, komunikazioen kalitatea zainduta eta edozein euskarritan.


EKINTZAK

Hizkuntza Ofizialen Erabilerarako Irizpideak finkatu idatzizko kanpo-harremanetan, paper bidezkoetan zein telematikoetan, indarrean dauden lege-arau orokorrak aintzat hartuta.

Administrazioarekiko harremanak euskaraz izan nahi dituzten herritarrak aintzat hartu, Udalarekin harremana euskara hutsean eduki nahi duten herritarren erroldaren bidez. Erakundearen erroldaren aplikazioa bermatzeko neurriak hartu.



4.- ITZULPENAK



ITZULPENAK

DIAGNOSIA

ONDO EGINDAKOAK	HOBETU BEHARREKOAK
<ul style="list-style-type: none">– Itzulpen asko udaletxean bertan egiten dira, itzulpengintza zerbitzura jo barik.– Herriko elkarteei itzulpen zerbitzua eskaintzen die Udal Euskaltegiak.– Itzultzaileak zuzenketa lana ere egiten du.– Itzulpen zerbitzua oso ona da.– Udal osoko bilkuretan berehalako itzulpengintza zerbitzua dago.	<ul style="list-style-type: none">– Itzulpen zerbitzura gehiegi jotzen da askotan, denbora faltagatik, edo euskara behar beste ez delako menperatzen, ...– Normalean itzultzen dira dokumenturik zailenak, teknikoenak.– Itzultzeko irizpideak ez daude zehaztuta.



ITZULPENAK

4.1.- Garai bateko itzulpenen komunikazio-kalitatea hobetu

EKINTZAK

Garai batean itzulitako erabilera-maila handiko dokumentu elebidunak aztertu eta txukundu, baita aplikazioetan daudenak ere.

Eguneratutako dokumentuak ezagutzera eman. Langile guztien esku jarri.

4.2.- Euskaraz ez dauden idazkien bertsio elebiduna ziurtatu.

EKINTZAK

Idazki-ereduak moldatu, zuzenagoak eta ulergarriagoak izan daitezen.

Eguneratutako dokumentuak ezagutzera eman. Langile guztien esku jarri.



ITZULPENAK

4.3.- Sortze eta itzultze prozesuen artean oreka lortu

EKINTZAK

Hizkuntza Ofizialen Erabilerarako Irizpideak finkatu itzulpenetarako, indarrean dauden lege-arau orokorrak aintzat hartuta.

Komunikazioa eta sentsibilizazioa landu langileen artean, erakundeak itzulpenari dagokionez ezarri dituen hizkuntza-irizpideak hedatzeko, euskaraz idaztera bultzatzeko, euskaraz iristen den oro itzultzera ez bidaltzeko, hartzaile pasibo gisa lan egiteko...

Itzulpen zerbitzuaren erabilera arauak zehaztu.

4.4.- Euskarazko testuen kalitatea hobetu

EKINTZAK

Testuen kalitatea neurtzeko protokoloa diseinatu eta martxan jarri.

Itzulpen zerbitzuaren lan-karga gutxitu , zuzentze lanei lehentasunak ezarriz.



ITZULPENAK

4.2.- Euskaraz ez dauden idazkien bertsio elebiduna ziurtatu.

EKINTZAK

Idazki-ereduak moldatu, zuzenagoak eta ulergarriagoak izan daitezen.

4.3.- Sortze eta itzultze prozesuen artean oreka lortu

EKINTZAK

Hizkuntza Ofizialen Erabilerarako Irizpideak finkatu itzulpenetarako, indarrean dauden lege-arau orokorrak aintzat hartuta.

4.4.- Euskarazko testuen kalitatea hobetu

EKINTZAK

Itzulpen zerbitzuaren lan-karga gutxitu , zuzentze lanei lehentasunak ezarriz.



5.- PRESTAKUNTZA OROKORRA



PRESTAKUNTZA OROKORRA

DIAGNOSIA

ONDO EGINDAKOAK	HOBETU BEHARREKOAK
<ul style="list-style-type: none">Udal Euskaltegian eta Euskara Zerbitzuan ikastaro gehienak euskaraz izaten dira, salbuespenak salbuespen.	<ul style="list-style-type: none">Udalan oso ikastaro gutxi egiten dira, eta egiten direnak oso mugatuak izaten dira.Egin diren ikastaro apurrak gaztelania hutsezkoak izan dira.Ikastaroak gaztelaniaz egiteak sarritan gauza batzuk gaztelaniaz egitera bultzatu du langilea.



PRESTAKUNTZA OROKORRA

5.1.-Langileen prestakuntza orokorrean euskararen erabilera areagotu.

EKINTZAK
Hizkuntza Ofizialen Erabilerarako Irizpideak finkatu langileen prestakuntza orokorrerako, indarrean dauden lege-arau orokorrak aintzat hartuta.
Komunikazioa eta sentsibilizazioa landu langileen artean, erakundeak langileen prestakuntza orokorrari dagokionez ezarri dituen hizkuntza-irizpideei buruz.
Euskarazko ikastaro gehiago eskaini kalitatea aintzat hartuta (ikastaroaren edukiari berari dagokionean eta baita komunikazio-tresnari dagokionean ere).
Ezagutza egokia duten langileei euskarazko ikastaroak eskaini.



PRESTAKUNTZA OROKORRA: LEHENTASUNAK

5.1.-Langileen prestakuntza orokorrean euskararen erabilera areagotu.

EKINTZAK

Hizkuntza Ofizialen Erabilerarako Irizpideak finkatu langileen prestakuntza orokorrerako, indarrean dauden lege-arau orokorrak aintzat hartuta.

Ezagutza egokia duten langileei euskarazko ikastaroak eskaini.



6.-TRESNA ETA APLIKAZIO INFORMATIKOAK



TRESNA ETA APLIKAZIO INFORMATIKOAK

DIAGNOSIA

ONDO EGINDAKOAK	HOBETU BEHARREKOAK
<ul style="list-style-type: none">Programa gehienak euskaraz dituzte udal euskaltegian.Programa batzuek euskaraz erabiltzeko aukera dute. Beste programa batzuek, ordea, ez dute aukera hori ematen.	<ul style="list-style-type: none">Udaleko ordenagailu guztiak (sistema eragilea, office) gaztelaniaz daude.Programa batzuk gaztelania hutsean daude (zerga bilketa aplikazioa, errentetako aplikazioa, fakturen aplikazioa, ...).Euskarazko aukera izan arren, ia guztiek gaztelaniaz erabiltzen dituzte.Euskara Zerbitzuan ere gaztelaniaz erabiltzen dituzte programak.Posta zerbitzua gaztelaniaz dago.Udaltzaingoaren kudeaketa programa gaztelania hutsezkoa da.



TRESNA ETA APLIKAZIO INFORMATIKOAK

6.1.-Tresna eta aplikazio informatikoetan euskararen erabilera gehitu.

EKINTZAK
Hizkuntza Ofizialen Erabilerarako Irizpideak finkatu tresna eta aplikazio informatikoetan (batez ere aplikazio edo programa informatiko berrietarako), indarrean dauden lege-arau orokorrak aintzat hartuta.
Komunikazioa eta sentsibilizazioa landu langileen artean: tresna eta aplikazio informatikoen inguruko Hizkuntza Ofizialen Erabilerarako Irizpideak ezagutzera emateko, horien betetzea bultzatzeko, euskarazko bertsioa erabiltzeko...
Programa eta aplikazio informatikoetako euskarazko bertsioa jarri, euskaraz erabiltzeko gaitasuna duten pertsoneri.
Prestakuntza eskaini programa eta aplikazio informatikoak euskaraz erabiltzeko.
Berariazko aplikazio eta programen euskarazko bertsioa berritu, zuzendu, gaurkotu...
Lansail guztietako aplikazio informatikoei buruzko datu-bilketa egin eta egoeraren diagnostia osatu, aurrerantzean hartu beharreko erabakiak hartzeko.
Espedienteen kudeaketarako programaren ardura dutenekin elkarlanean jarraitu, Euskararen Erabilera Planean ezarritako hizkuntza irizpideen aplikazioa bermatzeko.
Administrazio digitala posible egingo duten baliabide informatiko eta teknologikoetan euskararen erabilera bermatzeko azterketa egin eta neurriak hartu.



TRESNA ETA APLIKAZIO INFORMATIKOAK: LEHENTASUNAK

6.1.-Tresna eta aplikazio informatikoetan euskararen erabilera gehitu.

EKINTZAK

Hizkuntza Ofizialen Erabilerarako Irizpideak finkatu tresna eta aplikazio informatikoetan (batez ere aplikazio edo programa informatiko berrietarako), indarrean dauden lege-arau orokorrak aintzat hartuta.


Programa eta aplikazio informatikoetako euskarazko bertsioa jarri, euskaraz erabiltzeko gaitasuna duten pertsoneri.

Prestakuntza eskaini programa eta aplikazio informatikoak euskaraz erabiltzeko.

Lansail guztietako aplikazio informatikoei buruzko datu-bilketa egin eta egoeraren diagnosia osatu, aurrerantzean hartu beharreko erabakiak hartzeko.



7.-INTERNET ETA INTRANET SAREAK



INTERNET ETA INTRANET SAREAK

DIAGNOSIA

ONDO EGINDAKOAK	HOBETU BEHARREKOAK
<ul style="list-style-type: none">- Intranetik ez dago.- Webgune bakarra dauka udalak eta elebiduna da. Sartzerakoan hizkuntza aukeratu behar da. Turismoari buruzko atal batzuk ingelesez daude.- Berritzeko dago webgunea.- Sare sozialetan (facebook, twitter) ere euskaraz aritzen dira.	<ul style="list-style-type: none">- Interneteko bisita gehienak gaztelaniaz izaten dira.



INTERNET ETA INTRANET SAREAK

7.1.- Webguneetan euskararen presentzia bermatu, komunikagarritasuna zainduta.

EKINTZAK
Hizkuntza Ofizialen Erabilerarako Irizpideak definitu Internet sarean zintzilikatzen diren edukietan.
Komunikazioa eta sentsibilizazioa landu langileen artean erakundeak Internet sarerako zeintzuk Hizkuntza Ofizialen Erabilerarako Irizpide ezarri dituen ezagutzera emateko eta horiek betetzera bultzatzeko.
Herritarrak kontuan hartu (adibidez, kanpaina egin herritarren artean web gunera euskaraz sartzera anima daitezen).
Langile euskaldunen nabigatzaileak euskaraz konfiguratu.



INTERNET ETA INTRANET SAREAK: LEHENTASUNAK

7.1.- Webguneetan euskararen presentzia bermatu, komunikagarritasuna zainduta.

EKINTZAK
Hizkuntza Ofizialen Erabilerarako Irizpideak definitu Internet sarean zintzilikatzen diren edukietan.
Herritarrak kontuan hartu (adibidez, kanpaina egin herritarren artean web gunera euskaraz sartzera anima daitezen).
Langile euskaldunen nabigatzaileak euskaraz konfiguratu.



8.- ARGITALPENAK



ARGITALPENAK

DIAGNOSIA

ONDO EGINDAKOAK	HOBETU BEHARREKOAK
<ul style="list-style-type: none">– Kultura agenda eta aldizkaria bi hizkuntzatan argitaratzen da.– Argitalpenak bi hizkuntzatan izaten dira.– Euskara arloko argitalpenak euskara hutsean izaten dira.	<ul style="list-style-type: none">– Askotan komunikazio arduradunaren esku geratzen da testuak euskaratzea.



8.1.-Argitalpenetan euskararen presentzia gehitu.

EKINTZAK

Hizkuntza Ofizialen Erabilerarako Irizpideak finkatu edozein euskarritako argitalpenetarako, indarrean dauden lege-arau orokorrak aintzat hartuta.

Komunikazioa eta sentsibilizazioa landu langileen artean erakundeak argitalpenei dagokienez ezarri dituen hizkuntza-irizpideei buruz.

Argitalpenetako hizkera argia, zuzena eta egokia izatea sustatu.

Udalaren argitalpen eta dokumentu guztietan Udalak berak finkatutako toponimoen edo nomenklatorraren erabilera bermatzeko neurriak hartu.



ARGITALPENAK: LEHENTASUNAK

8.1.-Argitalpenetan euskararen presentzia gehitu.

EKINTZAK

Hizkuntza Ofizialen Erabilerarako Irizpideak finkatu edozein euskarritako argitalpenetarako, indarrean dauden lege-arau orokorrak aintzat hartuta.

Argitalpenetako hizkera argia, zuzena eta egokia izatea sustatu.



9.-HIZKUNTZA PAISAIA



HIZKUNTZA PAISAIA

DIAGNOSIA

ONDO EGINDAKOAK

- Kaleek euskarazko izenak dituzte.
- Udaletxean, kultur etxean, musika eskolan, liburutegian .. barruko errotuluak bietara daude, goian euskaraz eta behean gaztelaniaz.
- Udal Euskaltegian euskara hutsezko errotuluak daude.
- Kaleko kartel gehienak euskara hutsean daude (kiroldegia, kultur etxea, ...)
- Vado/pasabidea kartelak orain dela gutxi euskaratu dira.
- Udaltzainen autoak, uniformeak eta abar euskara hutsean daude.
- Obretako kartelak-eta bi hizkuntzatan daude orokorrean.
- Turismo arloko karteleria hiru hizkuntzatan izan ohi da (euskara, gaztelania, ingelesa).

HOBETU BEHARREKOAK

- Artxiboak, karpetak eta papeleria gaztelaniaz dago eta euskaraz dagoena ez da beti zuzena.
- Batzuetan gaztelaniazko testuak soberan egon daitezke.
- Kirol arloko esparruetan badaude hutsunak: markagailuak, kartelak, ...
- Udalerriaren izenaren aldaketa behin betiko onartzen denean, Sopela izena duten errotuluak aldatu beharko dira, euskararen arauari jarraiki.



HIZKUNTZA PAISAIA

9.1.-Erakunde barruko hizkuntza-paisaian euskararen presentzia gehitu

EKINTZAK
Hizkuntza Ofizialen Erabilerarako Irizpideak finkatu hizkuntza-paisaiaren arloan (noiz ele biz, noiz euskara hutsean...) , indarrean dauden lege-arau orokorrak aintzat hartuta.
Komunikazioa eta sentsibilizazioa landu langileen artean erakundeak hizkuntza-paisaiaren arloan ezarri dituen hizkuntza-irizpideez, eta horiek errespetatzera bultzatu; noizbehinkako oharrak euskaraz ere jartzera animatu.
Hizkuntza-paisaia aztertu eta gabeziak antzeman ondoren, gaizki daudenak zuzendu eta gaztelaniaz daudenak euskaraz ere jarri, gutxienez .
Hornitzaileekin harremanetan jarri, tresna berrien paneletan euskararen erabilera bermatzeko.
Euskara nabarmendu ele bietan dauden ohar edo errotuluetan (tamaina, kokapena...).
Langileen artxibo, karpeta eta abarrak euskaratu edo zuzendu.



9.2.- Administrazioaren eraginpeko bide-seinale, toponimia eta gainerako noizbehinkako oharretan euskararen erabilera handitu, komunikagarritasuna zainduta

EKINTZAK
Administrazioaren eraginpeko herriko seinale guztien gaineko azterketa egin eta gabeziak identifikatu.
Administrazioaren eraginpeko bide-seinaleak gutxienez euskaraz ere jartzeko prozedurak zehaztu, kasuan kasuko arduradunarekin batera.
Herriko izendegia (toponimoak, kale, parke publiko...) gutxienez euskaraz ere jarri eta oker daudenak zuzendu.
Euskararen presentzia bermatu herriko obretan.
Euskararen kalitatezko presentzia bermatu noizbehinka egiten diren feria, azoka edota merkatuetako kartel, ohar eta informazio-orrietan, bereziki, zaindu haur eta gazteentzako guneak eta idatziak.
Udalak berak finkatutako toponimoen edo nomenklatorraren erabilera bermatzeko neurriak hartu.
Azpi-kontratutzen diren enpresak (lorazaintza, argiteria, ...) euskarazko errotuluak eta uniformeak eskatzeko neurriak hartu.
Administrazioaren eraginpeko kartelen inbentarioa egin eta gabeziak identifikatu.



HIZKUNTZA PAISAIA: LEHENTASUNAK

9.1.-Erakunde barruko hizkuntza-paisaian euskararen presentzia gehitu.

EKINTZAK
Hizkuntza Ofizialen Erabilerarako Irizpideak finkatu hizkuntza-paisaiaren arloan (noiz ele biz, noiz euskara hutsean...) , indarrean dauden lege-arau orokorrak aintzat hartuta.
Hizkuntza-paisaia aztertu eta gabeziak antzeman ondoren, gaizki daudenak zuzendu eta gaztelaniaz daudenak euskaraz ere jarri, gutxienez .
Langileen artxibo, karpeta eta abarrak euskaratu edo zuzendu.

9.2.- Administrazioaren eraginpeko bide-seinale, toponimia eta gainerako noizbehinkako oharretan euskararen erabilera handitu, komunikagarritasuna zainduta

EKINTZAK
Administrazioaren eraginpeko herriko seinale guztien gaineko azterketa egin eta gabeziak identifikatu.
Administrazioaren eraginpeko bide-seinaleak gutxienez euskaraz ere jartzeko prozedurak zehaztu, kasuan kasuko arduradunarekin batera.
Herriko izendegia (toponimoak, kale, parke publiko...) gutxienez euskaraz ere jarri eta oker daudenak zuzendu.
Euskararen presentzia bermatu herriko obretan.



10.-IRAGARPENAK, PUBLIZITATEA ETA KANPAINAK



IRAGARPENAK, PUBLIZITATEA ETA KANPAINAK

DIAGNOSIA

ONDO EGINDAKOAK	HOBETU BEHARREKOAK
<ul style="list-style-type: none">— Kanpaina, iragarpen, bando zein prentsa oharrak euskaraz gutxienez daude beti.— Prentsaurrekoetan euskara lehenetsita egoten da.— Telebistako adierazpenak euskaraz egin izan dira.— Jendaurreko ekitaldiak euskaraz edo elebidun egiten dira.	<ul style="list-style-type: none">— Elkarrizketak medioaren hizkuntzaren arabera egiten dira.— Ez dago irizpiderik jendaurreko ekitaldietarako.



IRAGARPENAK, PUBLIZITATEA ETA KANPAINAK

10.1.- Iragarpen, publizitate eta kanpainen euskararen presentzia gehitu komunikagarritasuna zainduta.

EKINTZAK

Hizkuntza Ofizialen Erabilerarako Irizpideak finkatu publizitate eta kanpainen, indarrean dauden lege-arau orokorrak aintzat hartuta.

Komunikazioa eta sentsibilizazioa landu langileen eta arduradun politikoen artean erakundeak iragarpen, publizitate eta kanpainen arloan ezarri dituen hizkuntza-irizpideei buruz.

Publizitatea egiterakoan, hizkuntza bakoitzaren berezitasunak eta esateko moduak errespetatu: iragarkiak sortzean...

Euskara argi, zuzen eta egokia erabili.



IRAGARPENAK, PUBLIZITATEA ETA KANPAINAK: LEHENTASUNAK

10.1.- Iragarpen, publizitate eta kanpainetan euskararen presentzia gehitu komunikagarritasuna zainduta.

EKINTZAK

Hizkuntza Ofizialen Erabilerarako Irizpideak finkatu publizitate eta kanpainetan, indarrean dauden lege-arau orokorrak aintzat hartuta.

Publizitatea egiterakoan, hizkuntza bakoitzaren berezitasunak eta esateko moduak errespetatu: iragarkiak sortzean...



11.- DIRU-LAGUNTZAK



DIRU-LAGUNTZAK

DIAGNOSIA

ONDO EGINDAKOAK	HOBETU BEHARREKOAK
<ul style="list-style-type: none">– Kultura sailak kudeatzen dituen diru-laguntzetan (kultura, emakumea, hirugarren adina, lankidetzeta eta euskara) irizpide batzuk zehaztuta daude.– Diru-laguntza batzuetan memoria-eta euskaraz eginez gero, puntuazio gehiago ematen da.– Errotuluak euskaratzeko diru-laguntzak ezarri dira (hirigintza arloko teknikarien bitartekaritzarekin).– Diru-laguntzen irizpideen betetze maila memoriaren bidez begiratzen da.	<ul style="list-style-type: none">– Diru-laguntzetan ezarritako irizpideen betetze mailaren jarraipena hobetu beharko litzateke.



DIRU-LAGUNTZAK

11.1.- Diru-laguntzak esleitzerakoan, hizkuntza-baldintzak betetzen direla bermatu.

EKINTZAK

Hizkuntza Ofizialen Erabilerarako Irizpideak finkatu diru-laguntzen arloan, indarrean dauden lege-arau orokorrak aintzat hartuta, eta betetzen direla bermatu. Ondoko esparru hauei begira, gutxienez: enpresa-mundua; aisi-taldeak, kirol taldeak, kultur elkarteak, komunikabideak, hizkuntza-paisaia (merkataritza, estalaritza, teknologia berriak...)

Komunikazioa eta sentsibilizazioa landu langileen artean erakundeak diru-laguntzen arloan ezarri dituen hizkuntza-irizpideei buruz.



11.1.- Diru-laguntzak esleitzerakoan, hizkuntza-baldintzak betetzen direla bermatu.

EKINTZAK

Hizkuntza Ofizialen Erabilerarako Irizpideak finkatu diru-laguntzen arloan, indarrean dauden lege-arau orokorrak aintzat hartuta, eta betetzen direla bermatu. Ondoko esparru hauei begira, gutxienez: enpresa-mundua; aisi-taldeak, kirol taldeak, kultur elkarteak, komunikabideak, hizkuntza-paisaia (merkataritza, ostalaritza, teknologia berriak...).



12.-KONTRATAZIOAK



KONTRATAZIOAK

DIAGNOSIA

ONDO EGINDAKOAK	HOBETU BEHARREKOAK
<ul style="list-style-type: none">– Nominak euskaraz edo gaztelaniaz jasotzeko aukera dute langileek.– Kulturako kontratazioetan bai eskatu egiten dira baldintzak: langileek euskarazko gaitasuna izatea eskatzen da. Batzuetan puntuazioa hobetzen du eta beste batzuetan derrigorrezkoa da.	<ul style="list-style-type: none">– Plegu guztiak gaztelaniaz daude (nahiz eta nahiko estandarizatuak egon).– Ez daude irizpideak zehaztuta kontratazioetarako, batez ere pertsonal arloko kontratazioetarako.– Kontratuak ere gaztelaniaz daude.– Kulturako kontratazioetan jarraipena hobetu behar da.



KONTRATAZIOAK

12.1.-Kontratazioaren fase guztietan hizkuntza-baldintzak betetzen direla bermatu.

EKINTZAK
Hizkuntza Ofizialen Erabilerarako Irizpideak finkatu, indarrean dauden lege-arau orokorrak aintzat hartuta, eta betetzen direla bermatu. eta betetzen direla bermatu kontratazio administratiboen arloan.
Komunikazioa eta sentsibilizazioa landu erakundeko kontratazio-organoetan, baldintza-orrietan hizkuntza-baldintzak txertatu eta bete egiten direla ziurtatzeko.
Herritarrekiko harremanak eragiten dituzten kontratazioetan euskarazko baliabideen eta zerbitzua euskaraz emateko gaitasuna duten langileen presentzia bermatu.
Jadanik eginda dauden kontratazio administratiboetako hizkuntza betebeharren jarraipena egin.



KONTRATAZIOAK: LEHENTASUNAK

12.1.-Kontratazioaren fase guztietan hizkuntza-baldintzak betetzen direla bermatu.

EKINTZAK

Hizkuntza Ofizialen Erabilerarako Irizpideak finkatu, indarrean dauden lege-arau orokorrak aintzat hartuta, eta betetzen direla bermatu. eta betetzen direla bermatu kontratazio administratiboen arloan.

Herritarrekiko harremanak eragiten dituzten kontratazioetan euskarazko baliabideen eta zerbitzua euskaraz emateko gaitasuna duten langileen presentzia bermatu.

